



7. EBAZPEN-PROPOSAMENA, 2024ko apirilaren 10ekoa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena, 2023-2024ko ikasturtean unibertsitate- eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko beka-deialdiari buruzkoa.

2023ko ekainaren 20ko aginduaren bidez (2023ko ekainaren 29ko EHAA), Hezkuntza sailburuak beka-deialdi bat egin zuen, 2023-2024ko ikasturtean unibertsitate- eta unibertsitatekoak ez diren beste goi ikasketa batzuk egiteko.

2023ko ekainaren 20ko aginduak 37. artikuluan xedatutakoaren arabera eratu diren hautespen-epaimahaiak banaka aztertu dituzte eranskinean adierazitako eskaerak eta aipatutako eskaerei buruzko ebazpen-proposamena egin da.

Horregatik, aipatutako aginduan ezarritako prozeduraren gainontzeko arauak bete direnez,

PROPOSATZEN DUT

1.- Deialdi hori ebazteko zazpigarren proposamenaren berri ematea 2023-2024ko ikasturtean unibertsitate- eta beste goi ikasketa batzuk egiteko deialdian parte hartzen duten eskatzaileei. Eranskinean, laguntzak emateko edo ukatzeko proposamena duten eskabideak zerrendatzen dira. Eskatzaileek beken aplikazioaren bidez eskura ditzakete eskabideari buruzko ebazpen-proposamenaren xehetasunak.

2.- 10 egun balioduneko epe bat irekitzea, ebazpen-proposamena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita, eranskinean aipatzen diren eskatzaileek beka emateko proposamenaren kontra alegazioak aurkezteko edo proposamena onartzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 10a.

Miren Artaraz Miñón
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendaria